

BALOREZKO PROPOSAMENA

Bezeroari eskaintzen dioguna lasaitasuna eta erosotasuna da ekitaldi bat antolatzerakoan. Askotan, bezeroek ez dute denborarik edo esperientziarik ospakizun bat ondo prestatzeko, eta horrek estresa sortzen du. Gure enpresak arazo hori konpontzen du, antolaketa guztia bere gain hartzen duelako eta bezeroaren beharrak kontuan hartzen dituelako.

Beste enpresetatik bereizten gaituena hurbiltasuna eta pertsonalizazioa da. Ulertzen dugu ekitaldi bakoitza bakarra dela eta horregatik, bezeroarekin etengabeko harremana izaten dugu, bere ideiak entzun eta errespetatzeko. Antolaketa-prozesu osoa modu argi eta zehatzean azaltzen dugu momentu bakoitzean, bezeroak konfiantza izan dezan eta jakin dezan zer egiten ari garen.

Ez ditugu ekitaldiak modu estandar batean antolatzen, ekitaldi bakoitza berezia delako, beraz modu desberdinean antolatuko dira. Horrez gain, malgutasuna eskaintzen dugu aurrekontuei dagokienez, bezero guztiek kalitatezko zerbitzua eskuratzeko aukera izango dute. Gure helburua ez da soilik ekitaldi bat antolatzea, baizik eta esperientzia positibo eta ahaztezina sortzea.